

2022KO LAN EZBEHARREN TXOSTENA



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

AURKIBIDEA

| | |
|--------------------------------|----|
| Sarrera | 4 |
| EAEko datu ofizialak | 5 |
| Nafarroako datu ofizialak..... | 7 |
| Datu ofizialen ondorioak | 8 |
| ELAren datuak | 9 |
| Ondorio orokorrak | 10 |
| ELAren eskaerak | 12 |



0. SARRERA

Nahiz eta Covid pandemia atzean utzi, eta horrekin batera konfinamenduak, jardueren geldialdiak, ERTEak, EREak eta telelana, gauza asko aldatu dira gure inguruan. Osasun-krisiak ekarri du dagoeneko pairatzen ari ginen krisi ekonomiko eta sozialaren larriagotzea, eta gaur egun dena zailagoa, garestiagoa eta prekarioagoa da. Aberatsak gero eta aberatsagoak dira, eta gainerakoek estaldura sozial txikiagoa eta murrizketa handiagoak dituzte, txandakako gobernuek zerbitzu publikoen pribatizazioaren alde egiten duten bitartean.

Langile-klasearentzat gauzak okertu egin dira. 2022an jasan ditugun inflazio-maila altuen ondorioz, hipoteka, energia eta erosketa-saskia luxuzko artikulu bihurtu dira. Hala ere, soldatak ez dira proportzio berean hazi, eta horrek egunetik egunera pobreago bihurtzen gaitu. Ezbeharrak datuek ere okerrera egin dute 2022an, jarraian ikusiko dugun bezala. Pandemia aurreko okupatuak datuak gaintu dira 2022an (946.000 dira, 2019an baino 16.000 gehiago iturria: EUSTAT), eta lan-istripu eta lanbide-gaixotasunen estatistikak okerrera egiten ari dira urteak pasa ahala.

Iturri ofizialen arabera, 2022an egunero lanean 207 pertsonak izan dute lan-istripua EAEn, eta beste 8 pertsona gaixotu dira. Haatik, gertakari guztiak ez daude jasota. Enpleguaren kalitateak okerrera egiten du urtetik urtera, eta lan arriskuen prebentzioarako baliabideak gutxituz joan dira. Betiko gatazkak, prebentzioa vs. ekoizpena, pertsonen osasuna eta bizitza kaltetzen du. Patronala eta bere diru-interesak langileen osasunaren eta ongizatearen aurka doaz. Enpresek etekin ekonomikoak lehenesten dituzte eta horrek eragin negatiboa du langileen osasun fisikoan eta mentalean.

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legeak gutxieneko batzuk ezarri zituen duela 27 urte, baina gaur egun sistematikoki urratzen dute, bai enpresa pribatuek, baita administrazioak ere. Ezbetetze horiek kontrolatu beharko lituzketen erakunde publikoek hain baliabide gutxi dituzte eta hain daude gainezka, ezen ez baitira nahikoak eta ez baitira eraginkorrak lan-eremu seguruak bermatzeko orduan.

Iturri ofizialen arabera, 2022an lan-istripuek %1,16 egin dute gora, eta lanbide-gaixotasunek %4,8, aurreko urtearen aldean. Intzidentzia-indizeak %2,2 egin du gora hiru lurraldeetan, eta in itinere istripuak ere %8,4 hazi dira.

ELAren datuek ere jasotzen dute azken urtean laneko ezbeharren kopuruak gora egin duela oro har, baina iturri ofizialek jasotakoak baino askoz kopuru handiagoetan. Laneko gaixotasunei dagokienez, erregistro faltaren eskandalua salatzen jarraitzen dugu.

Gutxienez 10 pertsona hil dira amiantoaren ondorioz EAEn, eta hauek icebergaren punta baino ez dira; izan ere, erregistro ofizialek ez dituzte lanean eta egunero ELAn sortzen diren patologia gehienak jasotzen, eta BIDEFLAGUN Fundaziotik lan jatorria aitortzeko zailtasunez eta arazoz betetako bideari egin behar diogu aurre. Baita asbestosiaren moduko kasu nabarrietan ere, baten bat aipatzearen.

Datu horien larritasuna kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak laneko segurtasun eta osasunerako erabiltzen dituzten baliabideak hutsalak eta iraingarriak dira oraindik.

ELAk lan osasun eta segurtasun politika publikoak errotik aldatzea eskatzen du, urtero lan-istripuetan berrogeita hamar pertsona baino gehiago hil ez daitezen eta beste asko, askoz gehiago, gaixotu ez daitezen.

1. EAEko DATU OFIZIALAK

1.1. Lan istripuak

2022an, EAEn, guztira, 75.517 lan-istripu izan dira, 73.924 istripu berri eta 1.593 berriz gaixotze zenbatu dira. Istripu horietatik, 38.166 baja bideratu dira, guztizkoaren %50,5 alegia; aurreko urtean baino %5 gehiago. Baja gabeko lan-istripuak 37.351 izan dira, istripu guztien %49,4. 2021ean baino %2,4 gutxiago izan dira.

Baja eragin duten lan-istripu guztietatik, "in-itinere" istripuak barne, 36.291 istripu arinak izan dira, %95a; 252 larrizat izendatu dituzte, eta 30, hilgarritzat. 2021ko datuekin alderatuta, istripu arinak %4,8 gehitu dira. Istripu larriak %20 igo dira eta hilgarriak, berriz, %14 murriztu. Oro har 2022. urtean lan istripuek igoera nabarmena izan dute, bereziki larriek. In-itinere jazotako istripuak %8 handitu dira 2021.urtearekin alderatuta. Aldiz, datu ofizialen arabera 2022an bost istripu hilgarri gutxiago izan dira, 35etik 30ra pasatuz.

Lurraldeen arabera, Araban 6.490 bajadun lan-istripu berri erregistratu dira, 2021an baino %1 gutxiago, 5.680 lanean eta 810 in-itinere. Bizkaian guztira 18.702 istripu, %7 gehiago 2021rekin alderatuta, 16.891 lanean eta 1.901 in itinere, eta Gipuzkoan, berriz, 11.291, 2021 urtean baino %3 gehiago, 10.080 lanean eta 1.211 in itinere.

| | 2022 | | | | 2021 | | | |
|-----------------|--------|---------|------------|---------|--------|---------|------------|---------|
| | Arinak | Larriak | Hilgarriak | Guztira | Arinak | Larriak | Hilgarriak | Guztira |
| Araba | 6.435 | 50 | 5 | 6.490 | 6.512 | 40 | 10 | 6.562 |
| Bizkaia | 18.661 | 121 | 10 | 18.792 | 17.222 | 98 | 13 | 17.333 |
| Gipuzkoa | 11.195 | 81 | 15 | 11.291 | 10.872 | 72 | 12 | 10.956 |
| GUZTIRA | 36.291 | 252 | 30 | 36.573 | 34.606 | 210 | 35 | 34.851 |

Iturria: Osalan

EAEtik, Araba izan da bajadun istripuetan datuak hoberantz jo duen lurralde bakarra 2021. urtearekin alderatuta. Hala ere, istripu arinak eta hilgarriak jaitsi arren, Araban larriak eta in itinere kasuek gorakada izan dute. Gipuzkoan, berriz, aurreko urtearekin alderatuta oro har hazi egin da istripu kopurua, arin, larri eta hilgarrien kasuan -hiru lurraldeetatik egoera okerrera izanik- eta Bizkaian, istripu hilgarrien kasuan izan ezik -hiru gutxiago erregistratu dira-, arinetan eta larrietan istripu kopurua ere hazi egin da. Irakurketa berdintsua egin daiteke baja gabeko istripuez: Araba da hoberantz egin duen lurralde bakarra 2022. urtean.

Istripu hilgarriei dagokienez, iturri ofizialen arabera 2022. urtean erregistratutako langile kopuruak beheranzko joera izan du; zehazki lan istripuz bost hildako gutxiago zendu dira. Gipuzkoa izan da lan istripu hilgarriak hazi diren lurralde bakarra, hiru hildako gehiagorekin. Bizkaian hiru gutxiago zenbatu dira, eta Arabak izan du jaitsierarik nabarmenena, erdira murriztu baitira lan istripuz hildako langile kopurua, hamarretik bostera zenbatuz.

| Lan istripu hilgarriak | 2022 | 2021 | 2020 | 2019 | 2018 | 2017 | 2016 |
|------------------------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|
| Araba | 5 | 10 | 5 | 6 | 6 | 1 | 4 |
| Bizkaia | 10 | 13 | 16 | 12 | 22 | 15 | 23 |
| Gipuzkoa | 15 | 12 | 6 | 10 | 9 | 9 | 7 |
| GUZTIRA | 30 | 35 | 27 | 28 | 37 | 25 | 34 |

Iturria: Osalan

Lan-istripuen intzidentzia-indizeak (1.000 langileko gertatu diren lan istripu-kopurua) areagotu egin dira hiru lurraldeetan, bereziki Araban (56 puntu), non aurreko urtetik 18,8 puntu hazi den. Bizkaian 35,29 eta Gipuzkoan 32,45 puntu erregistratu dira, 2021ko datuekin konparatuta 1,8 eta 0,22 puntu gehiago, hurrenez hurren.

Sektoreei begira, nekazaritza-abeltzaintza-arrantza sektorearen intzidentzia-indizea Araban ia 8 puntu jaitsi da; Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, sektore hau igo egin da, bereziki Bizkaian (7,4 puntu gehiago). Hala ere, eraikuntza sektorea da hazierarik nabarmenena pairatu duena hiru lurraldeetan, bereziki Araban eta Bizkaian (5,6 eta 5 puntu gehiago). Zerbitzuen sektorean datuak egonkor mantendu dira 2022an aurreko urtearekin alderatuta. Gipuzkoan ere intzidentzia-indizeak lau sektoreetan aurreko urtetik nahiko egonkor mantendu dira, eraikuntza sektorean izan ezik (4,2 puntu gehiago).

Sexuari erreparatuta, gizonezkoen kasuan 2021tik 2022ra hazi egin da 2 puntu intzidentzia-indizea; aldiz, emakumeen kasuan murriztu egin da 0,58 puntu 2022an. Emakumezkoetan deigarria da Araban eman den jaitsiera, bai industrian (2,5 puntu gutxiago) eta bereziki lehen sektorean (15,5 puntu gutxiago).

Aldiz, eraikuntzan, emakumeen intzidentzia-indizea hiru lurraldeetan hazi da: 7,8 puntu Araban, 3 puntu, Bizkaian eta 0,3, Gipuzkoan. Gizonezkoetan intzidentzia-indizeak 4 sektoreetan igo dira, bereziki lehen sektorean (3,3 puntu) eta eraikuntzan (5 puntu).

Hiru lurraldeetan lanean pairatutako lan istripuen artean gizonezkoen datuak emakumezkoen bikoitza dira oro har; aldiz, emakumezkoek in itinere istripu gehiago pairatzen dituzte gizonezkoek baino.

1.2. Lan gaixotasunak

EAEEn 2.829 lan-gaixotasun jakinarazpen egin ziren 2022an, aurreko urtearekin alderatuta, hau da, %4,8 gehiago. Baja eragindako zein bazarik gabeko laneko gaixotasunak %1 eta %8,7 hazi dira, hurrenez hurren. Arabak eta Gipuzkoak lan gaixotasun jakinarazpen gutxiago erregistratu dituzte 2022an eta Bizkaiak, berriz, 237 gehiago. 2022. urtean mutualitateek laneko gaixotasunei loturiko 100 kasuko 48 baja onartu zituzten.

Lan-gaixotasun jakinarazpen guztietatik %62,7 gizonezkoei dagozkie eta %37, emakumezkoei. Hiru lurraldeetan nabarmendu daiteke industria sektorean gizonezkoak direla jakinarazpen gehien dituztenak; zerbitzu sektorean, berriz, emakumezkoak.

Agente fisikoekin erlazionaturiko lan-gaixotasunak dira jakinarazpen gehien suertatzen dituztenak, bai gizonezkoen zein emakumezkoen artean, jakinarazpen guztietatik %87a baitira. Oso urrunetik jarraitzen diote azaleko lan-gaixotasunek (%3,8). Infekzioekin erlazionaturiko lan-gaixotasunen jakinarazpenak emakumezkoetan gehiago dira gizonezkoetan baino, beste lan gaixotasun motetan, berriz, gizonezkoek dute jakinarazpen gehiago.

| Lan Gaixotasun Jakinarazpenak | | | | | | | |
|-------------------------------|------|------|------|------|------|------|------|
| URTEA | 2022 | 2021 | 2020 | 2019 | 2018 | 2017 | 2016 |
| KOPURUA | 2829 | 2700 | 2389 | 3152 | 3278 | 3101 | 2745 |

Iturria: Osalan

2. NAFARROAKO DATU OFIZIALAK

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak ez du oraindik 2022. urteari dagokion ezbehar-txostena egin, aurreko urteetan gertatu bezala; beraz, Espainako Gobernuak estatistikak hartu dira kontuan, baina datuak urriak dira eta ez dira behin betikoak.

2022ko urtarriletik abendura bitartean 12.026 lan-istripu zenbatu dira guztira Nafarroan, 10.809 lan-jardunaldian eta beste 1.177 in itinere, aurreko urtean baino 492 gehiago (+%4,06). Horietatik 14 hilgarriak izan dira, 80, larriak eta gainontzeko 11.932ak, arinak.

Lanbide-gaixotasunei dagokienez, urtarriletik abendura bitartean 1.299 jakinarazi dira, 2021. urtean baino %2,92 gehiago.

| | 2022 | | | | 2021 | | | |
|---------------------|--------|---------|------------|---------|--------|---------|------------|---------|
| | Arinak | Larriak | Hilgarriak | Guztira | Arinak | Larriak | Hilgarriak | Guztira |
| LAN ISTRIPUAK | 11922 | 90 | 14 | 12026 | 11463 | 78 | 15 | 11556 |
| LAN GAIXOTASUNAK | 1299 | | | | 1261 | | | |

Iturriak: MITES, CEPROSS

3. DATU OFIZIALEN ONDORIOAK

Datu ofizialen arabera EAEn 2022an lan ezbeharren datu orokorrek okerrera egin dute, lan istripuak %1,16 hazi baitira eta lan gaixotasunak, %4,8. 2021. urtearekin alderatua bajadun istripuak %5 hazi dira. Baja gabekoek, ordea, beheranzko joera izan dute (%2,4). Nafarroan ere lan istripuak %4a eta lan gaixotasunak %2 hazi dira 2022.urtean.

Aurreko urtearekin konparatuta istripu arinak %4,8 handitu dira, nahiz eta Arabako lurraldean istripu arinak jaitsi. Istripu larriak hiru lurraldeetan hazi dira, %20 gehiago izanik, eta lan istripu hilgarriak, berriz, %14 murriztu dira, Arabako (sei hildako gutxiago) eta Bizkaiko (hiru hildako gutxiago) datuen hobekuntzagatik (35tik 30ra pasatuz). Gipuzkoan, aldiz, istripu hilgarriek okerrera egin dute (hiru gehiago zenbatu dira). Beraz, oro har 2022. urtean lan istripuak hazi egin dira, bereziki kasu larriak, eta in itinere ezbeharrak (azken hauek %8ko hazkundea izan dute 2021. urtearekin alderatuta).

Lan-istripuen intzidentzia-tasa (lan-istripuen kopurua 1.000 langileko) hazi egin da baita ere hiru lurraldeetan, bereziki Araban (18,8 puntu gehiago), batik bat eraikuntza sektorean eman den igoeragatik. Gizonezkoetan 2022an hazi egin da intzidentzi-tasa eta emakumezkoetan, aldiz, jaitsi. Gizonek emakumeen intzidentzi-tasa bikoitza dute. Sektoreetako intzidentzi-tasei erreparatuta, eraikuntza da hazkunde handiena izan duena, hiru lurraldeetan hazi baita; zerbitzuen sektorea egonkor mantendu da.

Lan-gaixotasunen jakinarazpenak Erkidegoan 2022an %4,8 hazi dira, bai bajadunak zein baja gabekoak. Bizkaian eman dira jakinarazpen gehiago, eta Gipuzkoan eta Araban, berriz, aurreko urtean baino gutxiago. Gizonezkoen lan gaixotasun jakinarazpenak emakumezkoenak baino 1,5 aldiz gehiago dira. Industria sektorean ematen da jakinarazpen gehien; agente fisikoekin erlazonatutakoak dira kopuru garrantzitsuena.

4. ELAren DATUAK

2022an, ELAk gutxienez 71 lan-istripu hilgarri zenbatu ditu Hego Euskal Herrian, 51 EAEn eta 20 Nafarroan.

Istripu hauetatik 19 Bizkaian gertatu dira, 21 Gipuzkoan, 11 Araban eta 20 Nafarroan. 2021ko datuekin alderatuta, Araban eta Gipuzkoan lan istripuz hildakoen kopurua hazi egin da, bereziki Gipuzkoan, non bost langile gehiago zendu diren lan istripuen ondorioz. Araban bat gehiago izan da. Nafarroak aurreko urteko kopuru berdina izan du aurten, eta Bizkaiak, hiru gutxiago.

| Lan istripu hilgarriak | 2022 | 2021 | 2020 | 2019 | 2018 | 2017 | 2016 |
|------------------------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|
| ARABA | 11 | 10 | 18 | 6 | 6 | 5 | 3 |
| BIZKAIA | 19 | 22 | 24 | 16 | 30 | 20 | 29 |
| GIPUZKOA | 21 | 16 | 17 | 9 | 10 | 16 | 8 |
| NAFARROA | 20 | 20 | 11 | 15 | 21 | 14 | 13 |
| GUZTIRA | 71 | 68 | 70 | 67 | 55 | 55 | 53 |

Iturria: ELAren estatistikak

Istripu hilgarrietan xehetasun handiagoz begiratu,


- %38 istripu hilgarri ez-traumatikoak izan dira
- Biktimen %17 autonomoak izan dira.
- %17 altueratik erorita gertatutako istripu hilgarriak izan dira.
- %17 in-itinere istripu hilgarriak izan dira.
- %24 harrapatzeak edo kolpeak eragindako istripu hilgarriak izan dira.
- Istripu hilgarria izan zutenen %20 azpikontratatuak ziren.
- Industria sektorea izan da lan-istripu hilgarri gehien izan dituen, guztizkoaren %33,8arekin; eraikuntza sektorean gertatu da %25a, eta ondoren zerbitzuen sektorea dator, hildakoen %14arekin.
- Lehen sektorean 8 langile hil dira 2022an lan istripuan, horietatik 4 basogintza sektorean eta arrantzale bat.
- Gutxienez bost garraiolari hil dira lan istripuetan.
- Lan istripuz hildako guztien artean bost kanpotarrak izan dira, beste bost, emakumeak, eta bi aire faltagatik hil dira.

5. ONDORIO OROKORRAK

1.-2022an aurreko urtean baino lan istripu eta lan gaixotasun gehiago gertatu dira; horrela jasotzen dute bai iturri ofizialek, baita ELAk ere. Baja eragin duten istripuek gora egin dute 2022an. Hazi egin dira istripu arinak, baina batez ere larriak (azken hauek %20), eta hiru lurraldeetan izan da hazkundea. Bestalde, in itinere istripuak ere %8 gehitu dira aurreko urtearekin alderatua. Istripu hilgarriek beheranzko joera izan dute iturri ofizialen arabera, ez ordea ELAren datuen arabera.

2.-Oraindik ere EAEn eta Nafarroan gertatzen diren laneko istripu eta gaixotasun profesional askok estatistika ofizialetan erregistratu gabe jarraitzen dute. Urtero bezala, 2022.an ere lan-ezbeharren inguruko irakurketan, datu ofizialak eta ELAk jaso dituen datuak ez datoz bat. Iturri ofizialen arabera, zenbatutako lan istripu hilgarriek hobera egin dute 2022an: bost gutxiago erregistratu dira aurreko urtean baino, guztira 30. ELAk, ordea, bestelako datuak jaso ditu: 2022an behintzat 71 lan istripu hilgarri zenbatu ditu.

Iturri ofizialen eta ELAren estatistiken artean 41 lan istripu hilgarriren aldea dago. Ez dakigu non galdu diren lanean hildako langile hauen guztien istorioak. Lan istripuz hildakoen datuak ikusita erraz pentsa daiteke istripu arinetan eta larrietan ere antzeko ezberdintasuna izango dela; beraz, lan-istripu asko ez dira estatistika ofizialetan agertuko.



ELAren eta Iturri Ofizialen arteko lan istripuz hildakoen konparaketa

Soilik datu ofizialen arabera, EAEn egunero 207 pertsonak jasaten dute lan-istripuren bat EAEn. Datuak oso altuak izan arren, oso urrun daude errealitatetik; izan ere, lehen aipatu dugun bezala, asko ez dira erregistratzen (istripu arinak, in-itinere, etxeko langileen istripuak, autonomoenak, etab.), eta beste batzuk enpresek -zuzenean edo mutualitateen laguntzarekin-, ezkutatu egiten dituzte edo gizarte-segurantzara bideratzen dituzte lan jatorria ezabatzeko.

3.- Salatzen ditugun ezbehar-tasa hauek lotsagarriak dira XXI. mende honetan, kasu gehienetan lan istripu eta lan gaixotasunak ekiditeko modukoak direla jakinda. Argi dagoena da urtetik urtera lanean hiltzen direnen estatistikak ez direla hobetzen ari, nahiz eta geroz eta giza-baliabide eta errekurtso tekniko gehiago izan merkatuan lan osasun eta segurtasun arloan. Laneko osasunaren eta prebentzioaren egoerak ez du hobera egiten lantokietan eta lan zentroetan, eta erru nagusia dute pairatzen den prekaritate-maila inposatzen dutenek. Ezbeharren datu hauek prekaritatearen aurpegiak bortitzena erakusten digute. Lan-prekaritateak enpleguaren kalitate txarra dakar, eta honek ezinbestean istripu eta gaixotasunak lan esparruan. Laneko istripuen eta gaixotasunen arrazoi nagusiak dira azpikontratazio kate amaigabeak, lan-erritmo bortitzak, baliabide tekniko eta giza baliabideetan behar beste ez inbertitzea edo informazio eta prestakuntza gabezia; hauek guztiak enpresek eta patronalak bideratzen dituzte mutualitateen eta gobernuen laguntzarekin.

4.- Lan-istripuak lesioaren larritasunaren arabera aztertu ohi dira, nahiz eta ez dagoen definizio zehatzik, ez legezkorik, ez teknikorik ere. Kalifikazioa enpresen eta mutualitateen esku geratzen da. Honela, istripuen %99 arintzat jotzen da, nahiz eta asko larriak izan. Istripua arina bezala kalifikatzeak abantaila ugari du enpresentzat, hala nola, Osalanek eta ikuskaritzak istripuaren inguruan ikerketarik ez egitea edo lan segurtasun araudia ez betetzeagatik datozen izunik ez ordaintzea, besteak beste.

Mutualitateek lan-jatorriko patologiak ez aitortzeak mesede egiten dio berriro ere patronalari, eta jardunbide hori oso ohikoa da oraindik ere, langileak osasun-egoera txarrean lanera joatera edo osasun-sistema publikora joatera behartzen baititu, gastua azken horretara bideratuz. Gainera, egiaztatzen ari gara Gizarte Segurantzak berretsi egiten dituela mutualitateen jardunbide txarrak eta babes barik uzten dituela langileak.

5.- Gaixotasun profesionalen azpi-erregistroa ohikoa da, eta haren aitorten eskasa salatzen jarraitu behar dugu. Ezkutatzeko zerikusi handia du baja horien ondoriozko planteamendu ekonomikoekin; izan ere, gaixotasun bat profesionala izan edo ez izan, mutualitateek edo osasun-sistema publikoak hartzen du bere gain. Mutualitateek laneko patologien jatorria ukatzen badute eta gaixotasun arrunt gisa osasun-sistema publikora bideratzen badituzte, guztion artean ordaintzen ditugu lanpostuan sortutako kalte guztiak, eta ez mutualitateak, eta errentagarritasun ekonomikoa nagusitzen da langileen osasunaren ginetik.

6.- Heriozko lan istripu guztietatik %38a ez traumatikoak dira, oso datu altua. Bihotzekoak, ictus-ak eta abar modu ez-ohikoan hazi dira lantokietan ere. Bizi dugun prekaritateak eta lan baldintza kaskarrek eragin zuzena dute gure osasunean; hau guztia areagotu egiten dute ziurgabetasunak, ezegonkortasunak, langabeziak, kaleratzeak, ERTEek, EREek, enpresen itxierek, lan-baldintzen okerragotzeak, soldaten murrizketak, lan-kargen bat-bateko aldaketek, eta abarrek. Eta horrek guztiak langileen osasuna kaltetzen du, estresa areagotzen du eta patologia larriagoetara

bideratzen ditu, hala nola infartuak, isuriak, depresioak, etab. Arrisku psikosozialak gaur egungo pandemia bihurtu dira, eta laneko heriotz ez-traumatikoekin harreman estua dute.

7.- Gasteizko gobernuak langileriaren segurtasun eta osasunari garrantzi gutxi ematen dio, eta ez du gai hau dagokion seriotasunez hartzen. Lan osasun eta segurtasun politiken norabidea ez du aldatu, eta dagoeneko frogatu da ez direla eraginkorrak izan eta ez direla nahikoak ezbeharren gaitz soziala ezabatzeko. Lan osasuneko gastu publikoa baxuegia da oraindik ere: EAEko aurrekontu osoaren%0,01 baino ez da bideratzen partida horretara.

8.- Laneko Ikuskatzaile gutxi daude EAEn, antzeko langile kopururako European izaten diren erdia dugu. Horrela, ezinezkoa da prebentzio-legeen urraketa kontrolatzea eta prebentzio arloko salaketak hilabete askotako atzerapenarekin erantzuten dira, eraginkortasuna galduz.

9.- Laneko minbizien kasuak, amiantoa edo silikosisia kasu, gero eta gehiago dira. Aurten gutxienez

10 pertsona hil dira amiantoaren ondorioz. Laneko beste minbizi asko osasun sistema publikoak artatzen ditu mutualitateek kudeatu beharrean, eta lanarekin erlazionatu ezean enpresek dituzten erantzukizunak galdu egingo dira, esango baitute gaixotasunaren jatorriak ez duela zerikusirik lanpostuarekin, honek gaixorik dauden langileak eramaten ditu aitorten-falta hori judizializatzeraz, prozesu judizial luze eta zailei aurre egitera behartuz.

6. ELAren ESKAERAK

1.- Enpresen gaineko kontrol handiagoa. Lantokietako osasun eta prebentzio neurrien jarraipen egokia egiteko, ezinbestekoa da Osalan, ISPLN eta Lan Ikuskaritzako langileak Europako batez bestekoarekin parekatzea. Praktikan, EAEn gutxienez 80 teknikari gehiago izango lirateke, eta 35 gehiago Nafarroan. Halaber, Nafarroako Gobernuak Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren arloko eskumenak eskuratu behar ditu.

2.- Mutualitateak eta prebentzio-zerbitzuak publikatu behar ditugu eraginkorragoak izan daitezen eta osasuna irabazi ekonomikoen gainetik jar dezaten.

3.- Altueratik erortzeko arriskua duten enpresen eta harrapatzeko edo elementu kantzerigeno eta mutagenoekin lan egiteko arriskua duten jardueren kontrol eta jarraipen ekintza gehiago eskatzen dugu, araudia betetzen dela egiazta dadin.

4.- Prebentzio-arloan zigorren bat jaso duten enpresak erregistro publiko batean ezarri eta enpresa hauekin kontratatzeko debekua.

5.- EHko enpresa guztietan arrisku psikosozialen ebaluazioak egiteko eskaera, langileen baldintza psikosozialak are gehiago larriagotu dituela kontuan hartuta. Horretarako, bi urteko epean, enpresa

guztiak izan beharko dute gutxienez arrisku psikosozialen ebaluazio bat; gabeziak daudenean neurriak ezarri beharko dituzte, eta Osalango zein ISPLNko teknikariek egingo dute betetze-mailaren jarraipena.

6.- Eusko Jaurlaritzak bere aurrekontuetan lan osasun eta segurtasun arloan hobekuntzak bultzatzeko baliabide ekonomiko nahikoak jaso behar ditu, gai honek duen garrantziaren arabera arreta izan dezan.

7. Nafarroako Gobernuak lan-osasuneko elkarrizketa sozialean parte hartzen duten eragileei ez diezaiela diru publikorik bideratu, eta baliabide horiek Lan-osasun Plana eta amiantoa kentzeko plana garatzeko erabil ditzala.



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA